

ZER


BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*

154n. Uztaila Dagonilla

1991



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZAILLE



JAIME KEREXETA

- IDAZLEA
- OLERKARIA
- ITZULTZAILLEA
- ABADE EUSKALDUNA

Euskararen berba barriak

Ez dakit "euskara" barriaren berben asmatzalleak ia sorbalda gañean daukien burua.

Injenieroen Eskola Nagusian azterketen agirieta-rako moldezkoetan ipiñi dabe "AKTA". Onelaxe; erderatik euskerara biurtzeko, "C" ordeztu, "K" ipiñi, ta gauza da.

Erederazko "ACTA" euskeraz esateko aspalditik "AGIRIA" erabili izan dogu. Are ta geiago ezpan euskaldunak zalla aurkituten dabe onelako berbak esateko, adibidez: ACTA, DEFECTO, ARQUITECTO, etab. Erderaz egitean bere agoetatik urten dabe ATA, DEFETO etab.

*

Ta on ez jake jazoten bakarrik euskaldunei bilbotar jatorrei bere, nai ta euskera ez jakin.

Ikasleak gintzanean beste lurraldeetako ikasleak saiatuten ziran geuk onelako berbak esatean gure lepotik barre egiteko: Zer falta jatzu karrera amaituteko? Ta "El PROYECTO", erantzuten ba geuntsen, barreen barreak!

Aldi berean "Los Chimberos" edo onelako abes-talde batek disko bat egin eban onelan kantatuten eben: "tenemos un DEFETO, que no nos gusta, que no nos gusta...". Au entzunaz gure adiskede kanpotarrak barre andiak egiten ebezan.

Iberdueroren idazgeletan irakurri leike: AKZIONISTEN BULEGOA. Beste bein. Euskaldunak txarto egiten dabe, aotsa sartu gura dauskue.

*

Ona eldu garean ezkerreko, jazoriko bat edestuko dautset irakurleei.

Orduñan, nire jaioterrian, 1940. urtean alkate euskaldun bat geukan: Don Antonio Bikuña Agirre, ataundarra. Nai ta gartzetarik here erritik urtenda ta erdalerrira joanda, txarto egiten eban erderaz. Erderaz egitean here utsuneak ospetsuak izaten ziran.

Aldi aretan tabernetan artuten zan "impuesto de lujo". Orretarako tabernariak txarteletxu batzuk erantsiten eutsoezan edontziari. Eurak markatzen eben zergaren balioa. Txarteletxuei "subsidios" esaten geuntsen. Ba asikeran, guda-aldian, zergea "subsidio al combatiente" izenagaz ipiñi izan euskuen.

Bein udaletxera joan bear izan neban nire aitaren tabernarako alako txartelak artzeko. Alkateak itandu eustan ia zertarako joaten nintzan. Nire erantzuna entzunaz, egiztatu eben: "Bien, suicidios".

Zumalakarregi arrirudia dagoen eskillarak akatzak ugari eukezan. Bilbaoko etxegille bateri agindu eutsoen, igeltseroak bialduteko utsak kendutera. Etxegilleak Orduña'n bertan igeltsero-talde andi bat eukan. Alako 1941-ko otsaillean mendebalak Mariaren Lagundiaren ikastetxeko zati andia eroan izan eban eta birreraikiten ziarduen.

Igeltseroak atondu ebezan eskillarak eta nagusiak udalara bialdu eban zenbatzea: iru milla pezeta. Aldi aretakoak!

Alkateak topo egin eutson etxegilleari ta onelan zirautson:

— Urria, zenbatze andiegi ipiñi dauskuzu. Iru milla peseta!

— Don Antonio, konturatu zaitetz Bilbao'tik langilleak ekarri bear izan dodazala...

— Ez, Bilbao'tik ez. Ikastetxetik bertatik artu dozuz. Dakienari itandu dautsot zenbat balio dauen eta bosteun peseta erantzun daust. Beraz bosteunak ordainduko dautsudaz. Bialdu egistazu artu-agiri berria.

— Don Antonio, onelan jarten ba'zara gurago dot eskuratu ez eta udalari dubarik egin lana.

— Muchas gracias, muchas gracias! Ya pondr en ATA. En ATA pondr . Generoso has estao. Muchas gracias!

JAIME KERETXEA

LAGUNTZAILLE

ZER onen beste orrialde baten emoten dogu Labayru Ikastegiak Jaime Kerexeta'ri egin dautson omenaldiaren barria, baiña atariko idaz-lan onetan EUSKERAZALEAK ALKARTEAK alkarkide ta lankide dauan abade ta idazle ospetsu oneri buruz esatea ezin daike alboratu. Esker ona ta goratarrea zor dauzoz here laguntza aundari eta maitasuna bere adiskidetan.

Eta ZER gure aldizkari au be ezin isillik egon, ezin isillik eta txalorik jo bank geratu, ainbeste idazlan eta laguntza emon dautsozan lankide ospetsu onen goratarre-egunean.

*

IDAZ-LANAK

"Jaime Kerexeta abadea gazterik zaletu zan euske-reaz eta gaztaroko here emoitzik ederrena, olerkia dogu, gure artean isil-giro latza egoan urteetako olerkia: *Orbelak* (1958), eta *Bitargi* (1960) liburuak lekuko."

Eleiz-Batzar Nagusiak liturjian erri-izkuntzai emondako bideari aurrea artuz, *Eguneroko Meza* agertu eban 1962an. Urrengo Biblia ko atalik garrantzitsuenak euskeratzen ekin eban; azkenean dana osorik argitaratu arte. Ori izan zan *Euskal Biblia bizkaieraz* (1976).

Eleiz gaiak buruz beste itzulpen batzuk be egin dauz eta orrez gaiñera, eraldika, onomastika, iztegi-gintza, argitalpen gertatzea eta beste alderdi asko landu dauz. Bere lanak bibliografi mardula dira.

Langille nekatu-eziña eta ugaria da Kerexeta eta bere euskerea Bizkaiko euskaldun askoren biotzera eldu da."

*

JAKIN-BEARRA

Aurreko berba oneik omenaldirako emon eben esku-orrian Labayru'k idatziak dira, laburregiak baiña mamintsuak.

Baiña Kerexeta'ri buruz beste gauza asko eta asko geratzen dira esateko. Beronen bizitza-kondaira, luzea, aberatsa, jakingarria, eta erudugarria da gauza askotan.

Gaur jakingarri oneik batu bank dagoz, baiña norbaitek lan on egin nai ba'dau, ZER gure aldizkarian al dauan neurrian pozik argitaratuko genduke, esaterako, oraintxe Isidoro Etxebarrik Jose Maria Ariamendi-Arrieta'rena argitaratzen dauan antzera. Or agertu bearko litzakez, Kerexeta'ren ume-aroa Eloorrio'n, ikasketak Seminarioan, gudaldiko arazo larriak, guda-osteko goraberak, here eres-zaletasuna, here argitalpena, here abade-lana, Euskalerriaren aldedeko jokabideak, sarritan ondo larriak...

* * *

BESTE ASKO

Gure idazleak eta beste arlo askotan erriaren aide lan sakona eta iraunkorra egin daben asko eta asko, oso apalak izan dira eta dira: "Egin bear genduana egin gendun".

Baiña gure Erriak ba-dauko eskubidea olako gizonen burruka larriak eta lan iraunkorak zeintzuk izan diran jakiteko.

Zenbat izen aitatu gendukezan poz-pozik ado onetan! Baiña, ez ez dogu egin bear ori! Millak dira olako gizonak gure lurraldean eta gure kondairan eta zerrendea egitea geienak alboratzen litzake. Ez olakorik!

Egingo al dau baten batek arlo onetan lan zabala ta sakona.

Gaur Jaime Kerexeta gogoratzen dogu, Labayru'k omendu daualako eta dautsagun zorra ordaintzeko, zerbait esatera beintzat, beartuta ikusten dogulako geure burua.

Zorionak, ba, Jaime adiskide! Eta eskerrik asko!

BIZKARGIN AURTEN

MENDI MAITEA

Agur, Bizkargi! Bizkaiko mendietan niretzat kutunen; ni Kantauri itxas ondoan mundururatu izanik be, ementxe Zornorza'n, tontor errimez inguraturik —Intxorta, Anboto, Mugarra, Belatxikieta, Lemoatz, Bizkargi, Oiz, emon dot neure bizitza naikoa luzea. Ikasle nintzala, karmeldar nintzala, gerra aurretik eta ostean, makiña batean igona nozu mendi ontara. Muniketa, Amarotz, Lemoatx, baiña batez be Bizkargi. Auxe dugu nik eta besteak goiz edo arrasti atseginkor konbentutik urteteen.

Beetik erpiñeraiño, olako aldatz gogor barik, igarri ezta zoaz goiko puntaraiño. Arazoza ta San Juanetik artezean laster zagoz Gorozika'ko piñadian eta bide gañean, aitz mokorretik ikuspegi zoragarria, Oiz tik itxasora mendiño ta baserri zuriz apainduta, Gernika bertan, beiñola ondo errea, gaur barriztua ta uri aundi egiña.

* * *

NAGITU BARIK

Gorbea, Ganegorta, Oiz, Sollube'k, ur eta lur, ikuspegi ederrak eskintzen dauskuez; Bizkargi ez da atzera geratzen.

Eguraldi onez, zoragarria benetan ermitaren esku-matik naiz zkerretik, ara zein ona begiratzea.

Mendi aundi naiz txiki ere, igoteak, berez dakarsku nekea, alan be, bein ara ezkerro, uste ez genduan lakoxe atsegiña sortzen jaku barruan, beraz poz orren truke, zergaitik ez eroan izerdi emote ori?

Urte-barruan, edozein arotan, andra ta gizon, jente asko aratu oi da; mezak esaten dira ermitan, Santa Krutz ermitan, inguruko errietakoak edo-ta Ameriketan izandakoren batek eskiñita. Iñoiz egin ditut nik ezkontzak be. Geienetan Santa Krutz egunean eta urrengo domekan izaten da.

Ni sarri be sarri igon naz tontor zoragarri ortara mezea emoteko eta ostantzean, anai-arteko gerra aurretik eta ondoren.

Dala eguraldi ona, dala txarra, ez dot egungo nagirik izan ara igoteko.

Eta beti aurkitu dot ez bere egunean bakarrik, baita edozein egunetan be, jentea Kristo Gurutzean josiari otoitz egiten.

Andik ikusten diran erri-janteak maite dabe Bizkargi eta bertako Ermita.

Gerratean ondo lertuta geratu zan Kristoren eleizatxo au: geroago, Bizkaiko Aldundiak bere kontura jaso ta dotoretu eban.

*

IKUSGARRI

Ezta aundia. Barrutik ermiteak eun bat pertsona artuko dauz, sakristi txikia, ezkerretik leioa sakristia legez; aterpe nasai samarra, baiña ez geiegi eguraldi txarrez ona datozenentzat.

Iñoiz gaba an emoteko asmoz doazanak, janaria gertetako edo, ermita gaiñeko teillak, apurka apurka desagertu egin ziran, ermita narru gorrian geraturik.

Urteak dirala, Aste Santuz Morga Beekoan Kristoren Pasiñoa aldarrikatzen nembillela, orduan an alkate zanagaz aurkitu nintzan, eta itz eta itz, Bizkargi ermita be aitatu genduan, au da, Buzkargi motz egoala ta konponketa on baten premiñan.

Gure sorpenak sarri buruan irauliaz batzutan egi biurtzen dira. Santa Krutz jaietan eta urrengo igandean eskatu bear zan batez be, diru-mordo bat inguratzeke, teilla, zemento ta bear ziranak erosi ta ara jasoteko.

Aringa barik, urtero beti eskale, diru pilloa metatzen zan ortarako, eta azkenez, kontaratu gabe, teillatua, itxura gaiztoan egoana, Morga'ko eleiztar zintzo, langille, eskuzabal batzuk konpondurik, dizditsu be dizditsu.

Gaur, ba, Santa Krutz ermita Bizkargin panpox baizen ikusgarri dago.

*

OITURAK

Ordaintzea, borondate onez eta alkar aituta, lau udalek egin dabe: Morga, Muxika, Larrabetzu eta Zornotza-Etxano.

Zaindu ta jagotea aurrerantzean be laurok egingo dabe, txandaka, orrela erabagi bait dabe.

Leenago be, zer asko, meza emon eta besteak lau erriona zan; olan ezagutu neban nik, eta aurrerantzean be olaxe eroan gura da.

Antxiña Santa Krutz jaietz letaniaz igoten gendun ara, Etxano buru zalarik; sarritan joana naz Etxeno'tik Bizkargira; Muxika gaiñean, Gorozika'ko, Muxika'ko ta Zornotza'ko iru bideak alkartzen diran tokian, danok batu ta prozesiño aundian joaten giñan ermitaraiño eta an mezak esan.

Mezea abestua izaten da egun bietan. Eleizbarruan lenago; gaur aurreko zelaí zabalean, ango ta emengo gazte ta zarrez beteten dalako, oltza eder bat euki dogu Udaletxeak ipiñita, beste urteetan biotz oneko gazte-talde batek lez.

Aurten, egia esan, jorrailla ta maiatza eguraldi txarrekoak izan ziran; baita ni eroan ninduen igandean be.

Zelaian eskiñi gendun mezea. Etzan giro atsegiña. Jo eban txixtuak. Nik itaundu neban nun nai eben mezea, barruan ala kanpoan? Zelaia naiko loi egoan arren, aterri zan ezker, eta bosteun bat guztiz izan, antxe Udalak jarritako oltza jagian esan neban mezea, naiz-ta danentzat gogoko ez izan.

* * *

MEZEA

Ermita ingurua egiten da meza aurretik, txistulariak eta geiagok lagunduta, kantuz eta otoitzez ibildeun leku arek eskatzen dauan lez biotz ikarakorraz.

Aurten zelaia ta ermita-bira basa ta lupetzez betebetea egoalako, abestiz ornidu genduan meza-aurrea; goiak ez eben euri-tantarik be ixuri ta abestu zan gogotsu euskal meza.

Nik beti idatzi dot maiatzez Bizkargira doan jenteak, ba-dauala zerbait ara igotean, egun orretan badauala zer-edozer benetan sentitzen dan gauza berezi bat: Kristo eskertu? Grazi barriak eskatu? Bakotxak daki ondoen.

Beti euki oi da itzaldia, entzutedun batek edo meza emon berak; geienik Kristo ta berone.n Gurutz untzatzea izaten daizlariaren gaia, jenteak zerupe zabal eder onetan gogotsu ta arretaz entzuna.

Olako tokietan, izan be, barrua beroago erakutsi daroagu; geienez arpegiak azaldu oi dau barruko berotasuna.

Jaun artze ugaria. Nik itzaldian, gerratean emendik ibillia nazalako, mezan ta itzaldian, urtero gogorantzen ditut orduan emen jausi ziran illak: ez doguz inoiz aztu bear Aberri-zaintzan jausitakoak.

* * *

BAKETSU

Eta berton eguna igarota etxera datozenak oroipen gozo bat dakarre, urte guztian barrutik joaten ez jakena; naiz euri naiz eguzki, pozik jatsi oi dira; an geratu jaken zauskada biziak bizia damotse gizonak urte barruan bearrezko dauana, pozaren eztena lanari ekiteko.

Orain ogei-ogetamar urte, bigarren egunez batez be, guardi-zibillez beterik egozan bazterrak. Danok esaten gendun: Zertarako ainbeste zaintzaille? Aspala ez dago — bide neketsua edo!-ezta agiri zaintzailerik, ezta aguazillik! Eta ez da ezer jazoten, ez edariz, ez janariz, ez berbaz.

Gaur be egongo dira bazterretan asmo ain santuak ez daukazanak, baiña gizasemea baketan itxi ezker, naikoa baketsua dozu. Ez beraz urduritu bere barrua.

*

ETXERA

Izadia nun-nai eder. Mendietan atan be. Iraunkor dituzu oneik. Noiztik ete daukagu emen Bizkargi? Antxiña-antxiñako mendeetatik, antza danez, eta ez dager oraindik, argi motela•irudi, ostonduteko itxuraz.

Bai, gaur arteko, euskaldunak Kristo gurutz-josia gure Tabor-Kalbario lilluragarri onetan goratu dabe. Betoz belaunaldiz beleunaldi euskaldunak ona askatasuna ta zoriona Kristori eskatzera, asaba zaarren fede zintzoro zaindurik.

Apirila ta orilla aurten oso euritsu izan dira; ni Bizkargitik jaztean, alan be, Lemoatz, Artxanda, Atxerre, Oiz, eguzki izpitan egozan. Bahia ume negarti lez, laster illunera joakuzan goiak, eta euri-tantak agerku ziran, Jente naiko zan oindiño goietan eta etzan konbeni euririk. Jaia beti osoa.

Uzgaiztieta'tik Autzagana'ra bitartean, eguraldi larri samarra eginda be, andik eta emendik Bizkargira dometa atan igon zan jente bulartsuaren aide benetan otoiztu neban Kristo.

AITA ONAINDIA

ESKERRIKASKO, GURE GOIGOTZAI JAUNA

EGINBEARRA

Erri euskaldunetako elizetan euskera erabiltzearen beartasunaz mintzatu zaku Zirarda'tar Josemari, Iruña'ko gure goigotzai Jauna. Eskertzekoa da euskaldunon aldetik. Ez, on egitean mesede aundi bat egin digulako. Ez orixe! Ortaz itzegitera bearturik bait zegoan.

Izan ere, berak or esaten duena ez ere, euskeraren aide askoz geiago esanik eta agindurik bait dauke Ama Elizaren dotriñak, entziklikarik ospetsuenetako baten bidez.

Alatagutziz, itzegin dulako, merezi ditu On Jose Maria'k euskaldunon esker onak.

* * *

ELEIZEAREN BIDEA

"Euskeraren aide Elizak entziklika batean zerbait agindu duela"?, galdetuko didazute arriturik batek baiño geiagok. Baietz erantzungo dizuet nik.

Entziklika ori, "Pacem in Terris" izenekoa da. Elizak iñoiz emandako entziklikarik ederrenetakoa.

"Mater et Magistra" beste entziklikarekin batera, II Batikan Kontzilioaren oiñarri izen zena. Ba entziklika ori, aipatu gabe euskeraren zoriz eta euskeraren eskubideetaz mintzatzeko zaku, Laterri edo Estadu aundien barruan iltzear dauden izkuntza txikietaz mintzatzeko denean.

Euskera izkuntza txikia da, euskera il zorian dago, euskera here inguru guztian etsaiez inguraturik dago.

* * *

ETSAIAK

Etsai du euskerak, euskaldunen axolagabekeria (emakume euskaldunen zentzu-gabeko jokaera txor-roa batez ere).

Etsai izen du Laterriagandiko gorrotoa. Etsai, euskerarik ez dakitenen berenkoikeri gogorra ("habla en cristiano", zenbat aldiz ez digute esan erdaldunek?).

Etsai, erderaz itzegitearekin erriaren gaindik agertzen zirela uste izen duten unibertsitateetan ikasitako gure gizasemeen kulturik-eza.

Etsai, gaurko politikalarien zabarkeria.

Eta etsai izan du, diktatura-denboretan bereiziki, Eliza ber-bera. Puntu oietako bakoitza aztertzen asiko ba'giña, a! nolako gertakizun parregarri-negar-garriak kontatuko genituzke.

* * *

IRAKATSIA TA EGITEAK

Egia da elizetan bizitu dela urteak-zear gure euskera.

Bahia ori, Elizarena baiño geiago da Apaiz Jaunen merezimendua. Apaiz batzuen. Beste batzuek erderaren maitale izen bait ditugu.

Ta zer esanik ez prilleak, ikastetxeetako prailleak batez ere... Eta monjak!!! Majiña bat kalte egin diote Euskalerrian, Euskalerriko izkuntza gaixoari!

Beste gauza bat da, ordea, Elizaren dotriña, kristau guztiok betzezera bearturik gauden dotriña. Bai al dakizu izkuntzei-buruz Elizaren dotriñak zer erakusten duen?

— Izkuntzak, danak, gizadiaren aberastasuna direla.

— Il-zorian dagoen izkuntza baten bizia salbatzeko, sendotzeko eta edertzeko egiten den guztia, gauza zuzena, gauza ona, gauza santua dela.

— Izkuntza orren kontra egiten den GUZTIA, zuzentasunaren aurka era *larrian* dijoan gauza dela. "Lesiona *gravemente* la justicia" irakurri nuan nik gatzeleraz. Arritu ninduen *gravemente* orrek. Joan nintzan Elizaren Boletin Ofiziala den "Acta Apostolicae Sedis" izparringira, Aitasantuak berak zer itz erabilli ote zuen ikustera, eta begiak zabal-zabal ikusi aal izen nuen Aitasantuak ere, naiz latíñez, itza bera erabilli zuela: "GRAVITER".

Badugu kristauok zer pentsaturik!

UTS AUNDIA

Esanik utzi dogu euskerari-buruz Elizaren dotri-flak zer irakasten eta zer agintzen digun:

— Zuzentasunarekin, ots, Justiziarekin bat dato-rela Euskeraren aide egiten dugun guzti-guztia.

— Zuzentasunaren kontrakoa dela Euskeraren aurka egin dezakegun guzti-guztia.

Ori Aitasantu batek Aitasantu bezala irakatsia eta agindua da. Eta Aitasantua da Elizaren dotriña zer den erakusteko Jesukristo'ren Ordezkari bezala Maixu Nagusia.

Ori Aitasantuak entziklika batean esana eta agindua da. Ta entziklikak dire Aitasantuak Elizaren dotriña erakusteko eta agintzeko erabiltzen dituen dokumenturik garrantzitsuenak.

Eta izugarri larriak dira entziklika ortan euskera-ren aide Aitasantuak erabillitako itzak: "GRAVITER, era larrian, era astunean, dijoala zuzentasunaren aurka, euskeraren kalterako egin dezakegun guztia.

*

GOTZAIÑAK DIÑOANA

Alatagutziz, Euskalerrian katolikoak (izenez beintzat katolikoa), ots, eskubitarrak izen dira euskeraren kontrariorik aundienak. Izen dira..., eta dira!!!

Orregatik, bear-bearrezkoa zen gure goigotzaiak itzegitea. Eta itzegin du. Bitez berarentzat, oraindik "lingua navarrorum" itzegiten dugunon eskerrik be-roenak.

Zer esan dun?

— Elizak ardurarik eta arretarik aundienak jarri bear dituela gure kulturako aberastasun aundi on ba-besteko eta sendotzeko."

Barkatu, On Jose Maria: Euskera ez da "gure aberastan aundi bat" bakarrik. Euskera *gure aberastanunik aundiena* da. Munduari begira, gure aberastan *bakarra*.

*

ABERASTASUN BAKARRA

Mendi=baso, uri-erri, eliz-gaztelu eta orrelako gauzak beste errialdeek ere badituzte. Eta gureak baiño ederragoak. Ez dute ordea gurea bezin izkuntza ederrik, eta jakintza-bideetarako interesgarriagorik. Euskera da guk munduari eskeiñi dezaiokegun aberastan bakarra. Euskera; "Lingua Navarrorum"; "Naparren Izkera".

Kendu egiozu Naparroa'ri euskera. Bere nortasuna galduta Guadalajara bat bihurturik geldituko zaizu. Ots! Badu Guadalajara'k bere nortasuna. Bejondeiola! Baña gure erri-nortasuna, Naparroa'ren muiña, euskera dal Guk naparrok munduarentzat gorde bear dugun aberastasuna. Munduak, batez ere jakintza-munduak, guri eskatzen digun gauza bakarra!!!

Ta, euskera, euskaldun guztiena da: eskubikoena eta ezkerrekoena, abertzaleena eta ez-abertzaleena. Euskera politika-bide guztien gaindik nago. Euskera, politikabide oiek denak baiño millaka urtez zaarragoa da.

GUZTIOK

Orregatik, arrazoi du Goigotzaiak, Naparroa Euzkadirekin alkartzeko edo Naparroa Euskadigandik bereizteko euskera indarrez sartu naiean edo euskera indarrez ito naiean dabilten oien aurka itzegiten duenean.

Naparroa, berak nai duenean alkartuko da Euzkadirekin. Eta ez da alkartuko, nai ez ba'du. Ortan askatasun osoa du Naparroa'k.

Baiña ez du askatasunik Euskerari-buruz. Euskera gordetzeko, babesteko, bizkortzeko, edertzeko eta zabaltzeko al duen guztia egitera bearturik dago Naparroa! Euskeraz jakin, euskeraz jakin ez, napar guztiak daude ortara bearturik: gure aberastanunik aundiena "naparren izkuntza" delako; munduak, batez ere kulturadun-munduak, gizadiarentzat aberastan on gordetzea eskatzen digulako; Naparroa'ren nortasuna euskera delako; eta, kristau geranoi, Elizak on agintzen digulako.

Anitz esker zuri, On Jose Maria Zirarda'tar orri.

LATIEGITAR BIXENTE

(Iraña'ko "Diario de Navarra'n argitaratua)

JOSE MARI ARRASATE'N



Eldu zan egiazko eguna. On Jose'k bere ikasketak amaitu ondoren ta lenengoko Mezea emon eta gero, illabete inguru emon eban bere auzo ta senitartean, urrengo XEDEA artu baiño len.

Bere AMESA zan Belgikako Lobaina ikastetxera joatea SOZIAL=Ikasketa batzuk onduteko, biribilduteko. Bere fardela lanabasakin gertatu eban Lobainarako.

Arin bere belarrira eldu zan zurrumurra, Mondragon'eko XEDEA eukala ta bizkor ibilli zan on entzun eta gero, Gazteizko Gotzaiari idazki bat bialtzeko, bere GOGORIK zakonena ta beroena zein zan agertuz.

Gotzaiak eskuan artu ta gero, arin erantzun eutsen:

ZU MONDRAGON'ERA ta kito.

Ez egoan zer esanik. Ara joan bear izan eban.

Baiña on baiño aurrerago, Mondragon'etik agindari edo Zuzendari bat baiño geiago joan ziran Gazteizera, Gotzaiari eskatzen, bialdu dagiala Arrazatera EUKAN abaderik jakintsuena ta onena.

Gotzaiak erantzun eutsen bein ta berriz. EUKAN ABADERIK onena bertarako izango zala.

Gotzaia ez zan OKER ibilli, naita iru edo lau urtean gure Jose Mari LARRI eta ESTU ibilli, bai itzaldiak egiten ta bai abestuten edo kantetan. Arrasaten abes-batz on-ona egon da beti, teen ta orain. Jose Mari Meza nagusia esaten joaten zanean altarara, kantore guztiak ibiltzen ziran bere NOTEA artu ezinka, erantzuteko.

Lenengoko ITZALDIA egitera pilpitora joan zanean, jentek edo entzuleak eleizatik urtekeran esaten ei eben: Au da Gotzaiak bialdu daukun abade MOTZA itzaldiak egiteko.

Onak ez daki ERDERAZ be. Olako zirrimorruak entzuten ei ziran Arrasateko kaleetan eta etxeetan.

Orregatik apur bat oitura artu arte, zelakoa zan gure abadea. LARRI egon zan jentea. Bere ASMO zakonak EREITEN asi arte, alan agertzen zan Jose Mari jentearen artean.

ARRASATE ERREPUBLIKA AURRETIK

Ona ekarri bear dot zelakoa zan erri onetako jentea.

Nire USTEZ, ondo ezagutzen dot bertako jentea bertan orduan ta orain be senitarteko asko daukatelako.

Orduan amar izeko-osaba neukazan bertan ta onein inguruan berrogeitik gora lengusu ta lengusin.

Guztien jatorria baserria zan, guraso guztiak ta euren oiturak lenagoko JATORRIZKO oiturak ziran. Lanean ondo ta gogor ikasita ta zintzoak. Senide, lengusu ta lagun zintzoen artean ALTZAU ebezan OLEAK edo fabrikak, lana egiten eben euren zer egiña aurrera eroateko JO ta KEE. An ez zan begiratzzen zenbat ordu sartzen zan. Zortzi, amar-amabi edo geiago, Lantokia AURRERA eroateko edo jarraitzeko. Onela lan eginda ez dago PORROT egiterik.

Astegunetan Ian egiten zan asko ta ondo, beti batabesteari erakutsiaz. Jaiegunetan lanak utzi alde batera ta mendira orra edo ona, joaten ziran SENDO irauteko.

Senide arteko etxeetan, esan bear dot, eleizako oiturak sintzo eroaten zirala eta baten baiflo geiagotan errosarioa erreza-tzen zan. Nire lengusuak politika kontuan oso jatorrak ziran. Opiñio guztietakoak ziran ta sakon ibiltzen ziran bakoitzearen asmoa agertzen. Emen agertu bear dot lengusuen artean ez nebala entzun asarre aztunik, gogorrik, eztabaida illunik edo zatarrrik.

ERREPUBLIKA ELDU ZANEAN

Aldakizun au eldu zanean gure Laterrian, esan geinke, lenagoko edo aurreko giroa guztiz aldatu zala.

Giro on biurtu zan giro txarrera jenteen artean eta LAN-GILLEEN artean.

Pentsatzen asi ziran langilleak EURAK zirala munduko jaun eta jabeak eurek barik mundu au dezeituko zala, lanbarik dana ondatuko zala ta ezingo zala onelan gauza onik izan.

Prietok ta Largo Kaballerok esaten autsezan itzakin guztiz ARRONTU ziran ta geroago ta SARI obeagoak eskatzen ebezan eta ORDUAK gitxitu. Largoren itz gogorrek oneik izaten ziran:

EZIN BADOGU BEARGIÑEN NAGUSITASUNA ETA ESKUBIDEAK LORTU TA AURRERA JOAN ONEAN orduan ERRI-LEGEZKO JAUNTXXO BIZIERA (Democracia burguesa) ZAPALDU EDO AZPIRATUKO DOGU IRAULPEN GOGOR BATEGAZ NAGUSITASUNA EKARTEKO

Langilleak oso pozik eta arro agertzen ziran, onelako itzaldiak egiten eutsenean Prietok ta Largo Kaballerok.

Eskumatar eta EZKERREKO taldekoak ezin eben batak bestea ikusi Gorroto aundia eutsosen batak besteari.

Onela gauzak MATXINADA GOGOR bat egiteko, laterri guztiak eskumatarrak eta ezkerrek, gertatzen ebiltzen IXI-LLEAN IZKILLUAK pillatuten.

Eskumak ta eskerrak IZKILLU orreikin domeketan erri inguruetako mendira joaten ei ziran an entrenamentua egitera, arma orreikin BEGIXTALDI (punteria) ona eukiteko. Onelan

SAIOA eginda biurtzen ziran errira illunabarrean oso pozik aurrerapen aundiak egin ondoren.

Saio oneik egiten ei ziran Donosti, Eibar, Hernani eta Mondragon'en eta abar.

Gizartea onelan, geiago ta txartoago agertzen zan urduri, arduratuta, zer izango ote zan aurrerantzean.

1934ko URTEAN JAZOA

Urte orretako ekaiñaren 30ean amaitu neban nere soldaduzka, sei illabete KUOTA bezela egin da, eta oso pozik ta alai agertzen nintzan ZER EGIN onen ondoren. Egun orretan bertan, joan nintzan ILLETEGIRA illea moztuteko eta barreka ta arpegi argiaz agertu nintzan.

Illemoztzaileak, alan ikusita nire arpegia, ta ain pozik esan eustan: Zergaitik zagoz ain pozez beterik?

Ta nire erantzuna: Gaur bertan amaitu dotelako neri atsegin ez yaten egin bear bat bizitzan. Gaur amaitu dot soldaduzka. Geiago nik esan bank, berak, jarraian: ZUK EZ DOZU AMAITU SOLDADUZKA.

Arrituta gelditu nintzan. Ta apurka, apurka agertu eustan gauza asko. Zelan egoan Gipuzkoako gizartea SUTAUSTEGI (Polvorin) bat bezela ta bere zer-egiña amaitu arte onelan jardun genduan. Zerbait entzunda neukan, egintza asko zatarrak jaso ziran 33 garren urtearen amaieran, ta 34n. urteko asieran. Oraingo beste ILLAK EZ ZIRAN baiña, ordurako naikoa. Ezkerreko baten eorpen batera izan nintzan. Zerbaiten usaiña ba-neukan.

Ikastetxera joan nintzan eta bazkari denboran agertu neutsen lagun batzuri ta oneik ere itsumustuan artu nebazan bat baiño geiago ta geure bizimodu normala eroaten genduan naita erreligiosuak izan. Udea emon neban aldi bat Donostian ta beste aldi bat emen Bizkaian, ain zuzen YORREN.

1934-35 ikastaroa asi genduan beste zalaparta bank. Baiña laister agertu zan Laterri guztian agirian egoana, edo gertatzen ebiltzan iskanbil edo zalapartak. Ikastaroa asi ondoren arin agertu zan guda zatar bat bezela Asturias'en, Eibar'en, Hernani'n ta Mondragon'en.

Emen Sozialisten Batzokian, atxilotuta eukezan lau eskumatar ta jakin ebenean Gazteizko soldauak etozela Eibar ta Mondragon oinperatuteko, Arrasatekoak arrapalaran ez ekien zer egin ATXILOTUAKIN ta amorru aundiaz, iges egin baiño lenago, daunbadaka il zituen Marcelino Oreja ta Dagoberto Irazuzta ta zorionez Ricardo Azkoaga, salbaua izan zen bizkorragoa izan zalako eta leio batetik salto egin da iges egin dalako.

Mondragon ta Eibar borroka aundi bank menpetuak izan ziran ta Ondarretako ta Guadalupeko kerezpe edo espetxeak beterik gelditu ziran Gipuzkoako MATXINADEKIN.

Baiña Laterrian Asturiasko Matxinada edo ZALAPARTA txarragoa izan zan, Madrilgo Gobernuak bialdu bear izan eban Españak euskazan soldadurik gogorrenak Asturias menperatuteko.

Ille bi inguruan MEATZEKO jentea oinperatu eben soldau asko IL ondoren. Baiña Asturias zelan dan Menditsua lu-

zaro egon ziran soldauak ta Guardia Zibilak jentea azpiratu edo aginpean ipinteko.

Sarritan aipatu dot, noiz ta zer esan eustan gure edo nire ille-moztzaileak. Baiña andik urte bira etorri zan etorri-bearrekoa.

A izan benetakoa.

Lerro guzti oneik dakarre ona, gure Jose Maria Arizmen-diarrieta joan baiño lenago zelako GIZARTEKO GIROA egoan erri orretan. Errepublikasasoian gudan ta geroago Mondragon izan zan bolborategi edo satauts ontzi bat bezelakoa.

Orregaitik MEZULARI bat baiño geiago bialdu ei eutsoen Gotzaiari Mondrautarrak, gizon ongille baten bitartez, ia gizarate au apur bat onduten zan.

Agindarien artean ardura izugarria egoan, beti izan diralako LANGILLE ONAK, baiña borrokolari txarrak.

Mondragoneko langilleak, entzute edo OSPE zatarrekoak ziran. Nire TXIKI denboran, ainbeste mutur balz ikusita, lan-tegitik irten da gero, barrurañoko zirrara sartzen eusten.

Gotzaiak aldanik edo ekianik onena, orain danok uste dogu, ta Mondragontarrak be bai, baiña, lenengoko berriak ez ziran ain onak eta gero, zenbat ta geroago izan diranak obeak.

Lenengoko ITZALDI ondoren pulpitotik, usain txarra emoten eben, jentek esaten eben lez.

Orain esan eiozue Mondragontarrai. Ez dautzue itz bat ere txarto esango. Lenengo iru edo lau urteetan. On Jese Mariak eroan eban EROAPEN izugarriaz bere gurutzea erri orretan.

Beste idazkitxo baten esango dogu zelan ta zergaitik izan dan ALDAKETA ori. Denboreak dana egiten dau, izadiak egiten dauen moduan, bere sasoiari.

Sermoiak egiten ARABERA ez eban jakingo, baiña Mondragonera ASMO sakonak eroan ebazan bere BURUAN eta bere biotzean geiago. Jardun ta jardun eginda, lenengo gazteekin ta geroago zarrakin, zabaldu eban erri orretan ALE ona ta gero fruitu onak batu be bai.

Lanera begira Arrasate'tarrak beti izan dira sutsuak, tre-beak ta zintzoak, nire senideak ta beste batzuk.

Apur bat ZIBILIZAU ziranean edo EZI ziranean ta orren bitartez zatarkeriak edo okerkeriak aide batera itxi ta lanean zintzo asi ta jarraitu egiten dabenean, Arrasatek egin dauen ALDAKETA, beste erri batek ez eban egingo.

Ogeita amabost urtean onek egin dauan ONURA uste dot erri batek be ez ebalu egingo. Gaur egun Mondragon da EREDUZKOA edo jarraigarrria bai tresna ederrak eta ugariak egiten da bai be GIZABIDE onenetaikoetan edo onenak erakutsiaz.

Bilbon, 1991 Ekaiñaren 14an.

ETXEBERRITar ISIDOR

SAN JUAN BATEATZAILLEA ZORNOTZALDEAN

San Juan jaiak

Ospe aundiz egin daroaguz egunok. Izan be, ikasleak, azterketa ostean, pozez beterik amaitu dabe euren ikast-aroa; baseritarrak berde ta guri ikuskatzen euren landak eta soloak; opor-alditxoa urrin emoteko gertakizunak egiten diardue kaletarrak; eguzkia goi-gingatik irribarre gozotan daukagu.

Orixegaitik ei dira, eguzkiaren irribarra jaitzeko, mundu guztian nik uste eta euskal errian batez be, bere jai-bezperan ixetzen doguzan su-garrak. Aurten be, Zornotza'n, emen Larra inguruetan, illuntzeko amarrak jota, etzan falta sua ta garra, eta su-inguruan kanta ta dantza! Aspaldi-aspaldiko ekandu zarra dogu ta... Guk be, aurrez pillatuta geunkan egur eta zazkara meteari su emon geuntson, gero "sugeak, sapuak, sorgiñak erre" abesturik.

San Juan Kristoren aurreralari izan zan, mezu-emoille. Basamortuan bizi izan zan, Ari bidea gertatu nairik "penitentzi! penitentzi!" ots egiñaz. Gamelu narruz jazten zan, mats garratza ta basa-eztia jaten eban. Txarto egoana, naiz-ta errege jauregian, miin ausartiz salatzen... Orixegaitik azkenean, Erodes'ek neskatilla baten dantzaldi atsegiña zala-ta, burua moztu egioela agindu eban.

Euskalerrian konta ezin-ala eleiza ta ermita daukoz Santu onek. Kristok esan eban: "Emakumeetatik jaiotetan iñor bere ez Juan baiño aundiago". Orixegaitik edo, Kristautasunak maite-maite dau. Zornotzaldean be antxiñatik eleiza ta ermita asko izan dauz; gaur be, lau beintzat ospatzen ditugu: Larrea'ko karmeldar parrokia, Juan Bateatzallearen izenekoa, Ofrendo'koa, ementxe Etxano, Amorebieta eta Larrea bitartean mendizka ertzean, Ergoien auzuna jagi atsegiñean, eta Belatxikietan, oraintsu jarria.

Ofrendo'ko San Juan

Biderik naiko dagoz ona eltzeko, Ategorri'tik, Enartza'tik zear, errekatxoa igaro ta baserri aurrez, landaz landa gora, ber-bertan daukazu San Juan aspaldikoa, gure aurretiko fededunak jaso. Egunero, baiña domeka ta jai-egunez batez be, futbol-zelai

ezkerretik eta oraintsu jasotako Ikastetxe ponposetik, piñadi gerizpetsua ezker-eskuma dozula, errez igoten da jente mordoa ango egoitza atsegiñera. Batzuk jatekoaz doaz, beste batzuk aize ozkirria artzera bakarrik, Zornotza osoa begipe daukazu bertutik, eta inguruetako mendi-gaiñak.

Lengo domekaz, San Juan bezperan, an nintzan ni nagusiak bialduta mezea emoten, Korrikan arduratu ziranak, arduratu ziran aurten ango jaietaz be; areik eroan ninduen. Amabietan mezea; ni ara nintzaneko ba-zan txapliu-otsa. An ziran baita tabernariak eta Berna'ko dantzariak, meza ostean euren ekitaldia egingo ebenak. Eta jentea polito, San Juan-zale bi-ziak.

Aurretik zabal ebillen, San Juan'en ermitea, ondantua geunkala: aurreko illetan ainbat "oker" urreratu ziran ara, eta teillatutik barruratu ta bertako santuak, maiak, bankuak eta gaiñerakoak erre egin ebezala... Egizko zer orreik ez dira beti egi biribil izaten. Dena dala, mezatarako itxuraz egoan ermita barrua.

Gaiztakeri on aitatu neban nik meza-itzaldian. Azkenez au be san neban: "Olako zerbait egin ezik, ez dirala gure eleizak eta armitak barraizatzen". Eta on dalako bear bada, Ofrendo'ko San Juan egoitza barriztatua ta dotoretua izango da. Gure ermita askok gaitz bat daukie, auzoko iru edo lauren eskuetan dagozala "jaube" lez. Lenago (asmo onez eskuratuta), bai, ba-eukezan mendi, solo ta zugaztiak; gaur ez. Eta ustez jaube diran orreik ez daukie ez dirurik, ez adorerik ermitok konpontzeko aiñakorik. Eta, bat izan ezik, esan eustienez, euren eskubideak Udaletxeari iztekotan dagoz. Ortik nire esana: sarri ez datorrela txarto olako ezbear bat, gauzak bide egokiagoz eroateko.

Azken urteotan barriztatu diran ermita orreinan beraz, ikusi nai dogu Ofrendo'ko San Juan ermita be. Aspaldikoa da, ipuin, leienda ta istoriz bete. Berrogei bat aretx dagoz gaintxoan, San Juan ermitarenak; geienak erditik goitik bera zuluturik. Aurreko gizaldietan etenez gaixorik egozan umeak ekarri oi ebezan, bere egunez, osasun billa. Ume gaixoa zulo ortatik igaro bear zan osatzeko. Leen seroretxea eukan, nik ezagutu nebana. Ni ume nintzala

kantetan eta gero prediketean, pitean pitean egon izan naz barton. Eta ba-dira, laket bekit adieraztea, pertsona batzuk eta leku batzuk, orixegaitik edo, lillurakor jakuzanak.

Bagillaren 23 eguerdi ostean, pozik jatsi nintzan Larra'ra.

Ergoien'go San Juan

Biamamonean, astelenez, artikulua idazteko zeaztasunak batu naiez, Ergoien era eroan ninduan. Bizkargi azpian daukazu auzune dotore au. Ermita txikia, aretx artean. Noiztikoa ete da? Ezin errez jakin; garai baten, alkarren leian lez jaso ziran Bizkaiko ermitarik gienak; bateren data jakin ezker, besteena be, nik uste, errez atera leikela. Ara eldu giñanerako jente pilloa egoan ate-aurrean zain. Lapur edo gaizkiñen bildur ziran antza, eta meza-ordurarte ez eben aterik zabaldu. Barru ta kanpo, teillatua izan ezik, ondo samar daukazu, korua, azpia, ormak polito; aintziñako pulpitu bat barregarri, San Juan irudia altaran... Errez konpondu ta apur bat zainduta, polito eukiteko moduan.

Guk andik aide egitean, asi zan mezako sarrera kantua. Gu turista antzera ara joanak giñen, geure arazoetara, iñok konbitik egiteke.

Belatxikietako San Juan

Iñaki Deuna da ermita aretako patroia, eta dakigunez, bere egunean egiten da aundikiro ango jai. Baiña an inguruetakoa artzain-pastoreak, San Juan egunez egin oi dabe jai berezia, pazkozkoa be askotxok jai orretan egiñik. Asko batzen dira, Arrati, Zornotza, Garai ta Durango aldetik. Autortu ta Jaunartu egin oi dabe. Eginkizun orretan laguntzeko, lenago luzaro Aita Balier eta aren ondoren ni, zortzi-amar urtetan joan izan naz. Andrazko ta gizonezko, pastore ta pastore-familiko askotxo batu oi giñan, lenengo kاپillan eta gero Arestiren jatetxean lagun arteko

bazkarian, urteko kontuak eta kargu-aldatzeak be egiñik. Taberna on zergaz zamatu ebenean, jausi zan taberna here.

San Juanez ospatzen zan artzain billera au. Eta alkartze baten, San Juan, euren antzera, menditar izan zala, baiña aren irudirik ez eukiela ermitan eta irudi polit-ganozko bat billatu ta erosi bear zala bururatu jaken. Urrengo urterako Aresti'tar zoliak eskuratu eben bear zan irudia.

Eta antxe daukagu Iñaki deunaren ondoan San Juanena be. Egun orterako loraz apaindu ta egunean bertan, mezatan eta, aparteko otoitzak eta eskariak egiten jakoz. Juan izeneko artzain asko alkarren dira mendi-magal aretan.

Larrako San Juan

Larreatar jaunak jauregi eder bat eukien ementxe Larra'ko eleizearen aurrean, 1916an karmeldarrak eresia, eta ikastetxe biurtua; geroago, 1933an, Kalbariora aldatu zana. Jauregiak jabetza ederra eukan inguruan: ortua ta baratza, zelai zabala, gaur Ikastola; bide luzeak, oinbidea Kalbarioraiño ta zalpudi bidea Ategorriaraiño.

Zabala ta arlanduz egiña zan jauregia. Gerratean erdi-erreta egoalako, bota egin eben orduko arte-zale etziranak. Gaur komentuko eleiza ta parroki dana, jauregi orren kapilla izan zan, oso ederra Juan Bateatzaillearen izenekoa, eleizako Patroi, gaur altara nagusian Karmengo Ama eta San Juanen irudia gorengo nitxoan. Erdian aurkitzen zan antxiña baten.

Irudi eder-ederra dozu berau. Eta, azkenez, Juan Gurutzeko Santu aundiak, irudi ederrak nai ebazan Karmel-Igoerako XIgarren atalean idazten dauanez "eleiztarren eraspina" biztuteko gai diranak. Gure ermitetako geienak ez dira olakoak.

AITA ONAINDIA

IRAKURLE:

ZER'eri DAGOKION URTEKO SARIA ORDAINDU EZ BA'DOZU, BIALDU EGIZU "TXEKE" BAT "EUSKERAZALEAK ALKARTEA'REN IZENA EZARRITA COLON DE LARREATEGI 14, 2.^ara. 1.200 PEZETA DIRA. ESKERRIK ASKO!

DIRU-ZAINTZAK

EUROPA'KO GIROA

Errien sorkundea zelan izan dan galdetzen ba'dogu, mundu guztian izan dala antzekoa esan bear da: sendiak alkartu ziran auzoetan, auzoak errietan, erriak lurraldeetan eta lurraldeak edo aberriak laterrietan.

Baiña gure Euskalerrriak aurrerabide onetan eragozpen bat edo izaera berezi bat izan dau. Ez gara iñoz eldu laterri izatera eta orregaitik beste laterri batzuk menperatu gaitue, Franzia'k eta España'k, orretarako geure erria erdi bi eginda.

* * *

Arabiarrak, esaterako, Mahoma euren artean agertu arte, leiñuetan bizi ziran, eta guda santua egiteko alkartu ziran.

Israeldarrak, Samuel'en egunetara arte, leiñuetan bizi ziran eta errege bat eskatu eben, beste erri batzuren antzera laterria izateko.

Ameriketan oraindiño be leiñuetan bizi dira inditar batzuk, baiña euskaldunen antzera, euren bazterretara alboratuak izan dira.

España'n be olako leiñuak egozan iberoen aldian eta ez ziran eldu laterri izatera Errege Katolikuen aldira arte.

Olako adibide asko aitatu geinkez. Baiña oartxu bat egin barik ez: Toki batzutan gizaldietan bizi izan dira laterri barik, beste batzutan, ostera, naikoa arin osotu dabe erakunde sendo ori: Gogoratu Sumertarren aginterria, edo Ejiptotarrena. Eta Ameriketan bertan be oso antxiñakoak dira Inkatarren aginterria ta beste batzuren. Ezagunak dira Txina'tarren antxiñako aginterria eta beste asko. Onein aurkako ertzean gagoz iñoz laterri izan ez garan erria osotzen dogun euskaldunak.

*

Esandako guzti ori ez da sarrera bat baiño, lan onen arira eldu gaitez. Au litzake galdera: Zer jazo da eta zer jazoten da gure gaurko Europa'n?

Europa'n laterri aundiak izan dira, Karlos Aundiarrena naiz beste batzuk, danaren oiñarri Erroma'ko laterri nagusia zala. Baiña Europa ez da izan zoriontsu

here kondairan. Laterriak guda negargarriak sortu dabez beti, eta azkenean sortu dan laterri aundia, sortaldekoa, komunistena, ez da izan zoriontasunerako bidea.

Azterketa egin bearrean dago Europa eta here gotapena galdu ez daiten, or daukaguz erri txiki ta zapalduen gudak, eskari biziak eta matxinadak. Sarritan, gizaldietan oinperatuta egon diran erriak, bizirik iraun dabe eta euren eskubideak eskatzen dabez. Onein artean dago gure Euskalerrria be, baiña gaur besteak dira albiste, ez gurea.

* * *

Gaurko Europa'k erraietan dauka min aundia, eta erraiak errialdeak dira, laterri aundien menpean bizi izan diran errialdeak.

Zelan osatu barruko min ori? Laterrien nagusikeriagaz?

Ez. Bide bakarra erri txikiena eta aundien nortasuna aintzat artzea da. Europa ez da zoriontsu izango erri guztien nortasuna aintzat artu arte.

Gero, errialdeak alkartasuna bearke dabe. Euskalerrriak be bai, lenengo barruko batasuna eta gero Europa'ko beste erriakazko batasuna edo alkartasuna, baiña ori ez da epe labur baten lortzeko gauzea, ez da gudaren bidez lortu bear dana be.

Dana dala, ez dagigun aitzu: Giroa obarantza doa. Ez dogu lortuko nai dogun dana baiña bai bear doguna.

*

Mundu barri onetan gure iparra ez dagigun galdu, eta gure iparra, erriaren nortasuna da: Euskaldunak euskaldun lez agertu bear dogu eta orretarako gure nortasunaren agiri guztiak indartu: kondaira ezagutu, izkuntza erabilli ta indartu, erri-oiturak biziagotu...

Gure nortasuna galtzen ba'dogu, gureak egin dau. "Emen erri bat izan zan", esango dabe gure ondorengoak.

OLAZAR'tar MARTIN'ek

GURE GAZTEDIA GAUR

Gazte izena erabilten dogu 15 eta 29 urte bitartekoentzat.

Gaur Euskalerrian ia milloi erdi dira, adin orretan sartzen diranak, au da, gure biztanlegoaren % 25,1.

Nun dago gaztedi ori?

Erdiak baiño geiago % 55,5 Bizkaia'n. Beste % 32,2 Gipuzkoa'n eta talderik txikiena, % 12,3 Araba'n.

Neska ta mutillak

Sexu goraberan mutillak zerbait geixuago dira: % 50,6 eta neskak % 49,4.

Eskondu ala ezkongai

Sail onetan ezkongaiak dira geien. Neskak lenago ezkontzen dira mutillak baiño, nai eta neskak be, azken amar urtetan, len baiño beranduago ezkondu.

Lana eta lanik eza

15-29 urtetako gazteetan landunak lanik bakoak baiño zerbait gitxiago dira: landunak % 49,7 eta lan bakoak % 50,3.

Ikasleak

Gaur, talderik ugariena ikasleak dira. Neska-mutillen artean ia gaztedi erdia.

Lanik ezin, edo ikasi ezin eta irabazpideko lanetan diarduenak, gaztediaren % 2,7 dira.

Lanean diarduenen artean, talde gitxienekoa da euren kontura dabiltzanena, edo etxeko ogibidekoak: % 6,30. Ordez % 25,6 iñoren konturakoak.

Ikasle taldean sartzen diranetatik, ikasketa utsak egiten diarduenak % 44 dira eta lan egin eta ikasketak batera daroezanak % 3,6.

Gaur etxeko zereginetan geratzen diran neskak % 2,6 baiño ez dira.

Politika

Lanik egiten ez dabenen taldean, ikasle artean, esateko, katolikoak geientsu dira. Ordez lanean diarduenen artean, ardurabako eta ateoak geiago dira.

Emakume izatea

% 62,2 gaztek uste dabe lana lortzeko saillean, emakumeak ez-bardintasunean aurkitzen dirala. Bai neska eta bai mutillak uste dabe neskentzako lana lortzeko aukerak murriztu egin dirala. Eta lan barruan gorapena lortzekko emakume izatea atzerakor dala.

Laneko egoera

Gazte langille artean, bitik bat pozik dabil bere lanean; ia irutik bat, erdiz-erdi, eta seitik bat ez dabil pozik.

Lan-bakoen egoera

Igarten da azken urteotan lanik ezean egozanen kopurua beratu egin dala. Baiña oraindik lanik bakoen ainbestekoa gogorra da: % 17,2.

Lan barik dagozanetatik erdiak iñoiz lan egin eta galdu ebelako da. Ba dago lanik ezeko sail bat, irutik bat, oraindik lanean sartzea lortu ez dabena.

Zer egin lanik-eza kentzeko?

Gazteen ustez lan-gaia erabidea aldatu egin bear da:

— Lenengotik ordu extrak kenduaz.

— % 45'k uste dau zar-saritzeko urtea aurreratu bear dala.

— % 35'k uste dau laneko orduak gitxitu egin bear dirala.

— % 34'k lantegietan teknoloji neurria geitu bear dala.

— % 31,9'k kanporako saltzeak geitu bearra dagola.

Ikasleen egoera

EGB eta FPI'n dabiltzan gazteak % 5,6 dira.

BUP-COU eta FP2 taldekoak zerbait ugaritu egin dira. Len % 20,3 eta orain % 21,3.

Inkiñeru, Erdi-Maillako eskletako eta EGB'ko irakasle eta antzerakuak, ATS eta Unibersitate-Eskola bigarren ziklokoak eta Fakultadetakoak geitu egin dira eta % 17,5'ra eldu.

Zeazu bako ikasketak egiten diarduenak % 3,50 dira.

Ikasketen lekua

Ikastetxe publikoen eragiña geitu egin da.

Ikastetxe pribatu eta batez be Erlijosoenak beratu, nai ta oraindik bigarren mailla baten eutsi.

Ikastolen gorabidea EGB maillan, gazteen % 10'era eldu da.

Euskeraz ala erderaz?

Eziketan eta izkuntzen maillan EGB (OHO) maillan % 54,9 dira klaseak erderaz eukitea naiago dabena eta euskera ikaskizun (asignatura) bat lez artu (A aukera).

Bestalde, klaseak euskeraz eta gaztelania ikaskizuntzat artu nai dabena (D aukera) % 11,6 dira.

Elebitakoak (bilingueak), au da, erdia euskeraz ta erdia erderaz ikastearen aldekoak, gitxi dira: % 2,2.

BUP'en bardintsu jokatzen da, baiña gitxiago dira A eta D erduen partaideak.

(Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo sailleko zuzendaritzak agertutako azterketan, Pedro Gonzalez Blasco'k idatzitako "Ocupacion, Desempleo y Mundo estudiantil" lanetik aukeratu laburtu eta euskeratua.)

EUSKEREAREN MINBIZIA

Oarra: Idazpuru au dauala, atera dau Gotzon Garate Josulagun adiskideak idaz-lan Irakurgarri bat DEIA egunkarian. Bizkaieratuta argitaratzen dogu ZER onetan. Eskerrik asko Gotzon adiskideari (DEIA 1991-6-26)

Euskereak irango ete dau? Indartuko ete da? Galdu egingo ete da betiko?

Nekez urtengo dau bizirik. Alde batetik euskerearen beraren makaltasunagaitik. Gitxi dira euskeraz berba egiten dabenak. Izkuntza au baztertuta egon da luzaroan eta gatx egingo jako gaurko munduagaz ezkontzea.

Beste aide batetik, ondoan daukazan izkuntzak indartsuak dira eta ez dautsoe ezelako maitasunik. Frantzesak eta españolak poz aundia artuko leukee euskerea galduko ba'litz. Arazo gitxiago, zatiketareen bildurrik ez, bakea, España ta Frantziako laterrien batasuna salbauta. "Txakurra il ezkeru, amurrurik ez".

Españatarrak Ameriketako ango izkuntzak il eta eurena ezarri eben. Kukuak egiten dauana egin eben: Inditarren abietan españatarren arrautzak egin eta bertako txitak abitik kanpora bota. Eta lan on egiten dabe orain be Euskalerrian, naizta euskaldun batzuk inditarrak baiño apur bat biziago erantzun.

Asko lortu dabe. Gipuzkoa'n, adibidez, gizaldi onen asieran, españatarrak arrautzak emen egiten asi ziranean, abian % 90 euskal txita egozan, orain % 40-edo. Españatarren txitak % 60. Ameriketako inditarren bidetik doaz ba giputzak.

Laterri-legeak egin dabez eta txita españatarrak ondo janaritzeko agintzen dabe. Bertoko txitak kanpotarren izkuntza ikasi bear dabe. Eta Europa'ko izkuntzarik zarrena galtzen ba'da? Orrek ez dau ardura, baiña nor da Europa'n españatarrai n ala ñ idatzi bear dan agindu leikenik? Ori gauza larria ta astuna litzake gero!

Dana dala, euskereak gaur-egun dauan gatxik aundiena, minbizi galgarria, bildurra da, lotsea: Erdaldun bat aurrean egotea naikoa da, talde oso bat bildurrez erderaz berbetan asteko.

Euskerea galtzen ba'da onexegaitik izango da: Alperrik dira ikastolak eta euskaltegiak, alperrik egunkariak eta telebista.

Gaur-egun Euskalerrian ia toki guztietan dago erdeldunen bat, batzarretan naiz ostatueta, naiz kalean naiz jaietan naiz idazgoetan. Baserrietan be bai.

Eta euskaldunak zanetan morroi-gaisoa dauke sartuta, eradeldun bat ba'dago erdera egitera beartuta dagozela uste dabe. Auxe da euskerearen minbizia.

Minbizi au aspalditik dator eta onegaitik Euskalerrian zati aundiak galdu egin dira, erdeldun biurtu dira.

Euskaldunak jokabide minbizitsu au aldatzen ez ba'dabe, euskerearenak egin dau. Botika guztiak alperrik izango dira.

Euskaldunak españatarren aurrean gaztelera egiten ba'dabe, kito! Ia betizango dabe aurrean españatarren bat.

To ber or not to be, this is the question. Euskaldunen artean euskaldun izatea erraza da. Kukuaren aurrean euskeraz egitea, or dago untzea. Bildurak eta lotseak galduko dabe euskerea.

OLAZAR'tar Martin'ek Bizkaieratua.

APAIZ ADISKIDEEN URTEKO JAIA

Agur adiskide zoragarriak
olako egun zorian,
alkartasuna gauz ederra da
gizon leialen artean;
zure bearrak, nire bearrak
batu gaitu onenian,
txolarte ontan parre-irrika
adiskidetasunian.

Munduan leiten egitekorik
santu eta zuzenenak,
aspalditxotik astuntzen gaitu
emengo zama gorenak;
baiña egitan, ilduratzeak
ba-dauz beren ondorenak,
lurra argitu ta gero lortu
zeruko argitasunak.

Erri eder bat dogu aurrean
odol, itzez, berezia,
Aitorren leiñu bardin-gabeko
jatorriaren loria;
odolez bakan, izkuntzaz jori,
zeruetako grazia,
eusko apaiza, salba egizu
zeurea dozun erria.

PAULIN

GURUTZEKO JUAN DOATSUA

Juan Gurutzekoa, here eguneroko lanari ekinik, monjak autortzen izan da, eta apaltzeko ordua gain dala-ta, bizkor doa komenturuntz, kantari:

0 Zu, gau-bide-erakusle!
Gau argi-urratzez gain maitagarri.
Oi gau maitea Maiteaz
alkartu, batu zenduzana,
maiteño Maiteaz alkar eseri.

Arimen onerako ainbat lan eginda, ainbat liburu eder arrigarri idatzita, zapatu goiz baten, 1591ko abenduaren 14an Ubeda'n emon eban azken arnasa.

Santu aundia eta olerkari ez txikia. Olerkia ta santutasuna, pentsamentu eta eginkizun bardin-antzekoak ei dira: Jainko billa dabil

santua, eta olerkaria ez etc? Danak ba leiteke ezetz; baiña olerkaria be barenez dabil egiaren eta ederraren billa; Jainkoa barriz egia dozu, eta ederra. Juan Gurutzekoaren liburuetan Bibliak dago dirdei, Jainko arnasaz idatzia, egiz eta ederrez apain; gure idazleak orko irakatsia darabil gaitzat here idazti sakon, jainkozko, zoragarrietan. Karmeldar santua, Santu ta Olerkari dogu.

Ao batez diño Leon'go Frai Luis dogula espainiar literaturan olerkaririk onena. Eta gure "Orixe"-k, Luis eta gure Juan parean jarririk biak oror dabiltzala diño "Zertan agertu da, bada, ohea Luis? Gauza batzutan, ez Neurtitzez neurtitz eta ahapaldiz ahapaldi bakarka artu ezker, Luis ez da iristen Donibane'ren ondora Ontaz naikoa gaurkoz*, beste artikululu luzeago baten gai oneri ekingo dautsagu.

Eredu lez ona Juan Gurutzekoaren olerkitxo samur au:

ARTZAINTXO BAT

Artzaintxoa bakar dago miñetan,
ez dau atsegiñik, ez dau pozikan;
Artzain-Neska; gaut'egun; gogoan;
Bularra dau zauriz aren maitetan

Ez dago negarra maite-zauritzez,
orrek ez bait dautzu jarten naigabez,
biotza daroa aren odolez;
aaztu daualakoz dago negarrez.

Artzain neskatxa txit aratz-ederrak
Aaztu, oi!, dauala gogoratzeak;
erbeste nai dauz jasan oiñazeak
bularra dauala zauriz aren maiteak.

Onela diño: "Ai, ene zori urri!,
ni maitatu ez nai nauan ari,
nigandiko pozik nai ez dauanari,
biotza aren maitasunez zauri!"

Andik luzarora, zugatz batetik,
besoak zabaldu zituan ederrik,
eta antxe gelditu jatzun illotzik,
biotza aren maitez zauriturik.

AITA ONAINDIA

GAURKO NIRE KANTA (Teresatxo Deune)

1. Une bat da nire bizia, aldakor eta zalu;
aldiaz joan doakit bizia, bizkor ariña,
Jainkorari nik jasoko kanta eztkorra
gaurkoz beñik-bein
2. **Ain zaitut maite, Jaunal.. Zure maitea nik** ikur;
egun eneko ontan nik Zu izango zurrakitz eusle,
zatorkidaz, bekust zure epanetan irripar leuna,
gaurkoz beñik-bein.
3. **Zer niri, ene Senar, geroa ba-jat itzal aundiko?**
Ez, ez dautzut eskatzen biarkorik, ez dautzut!..
Jaboizu garbi nire biotza ni zeure magalpe gordez,
gaurkoz beñik-bein.
4. **Biarkoa gogotan ekarriz, illuna nire godamena,**
larria ta zaputza daustaz biotzera ekarten,
baiña nik, ene Jainkoa, proba ta pairua ditut eder,
gaurkoz beñik-bein.
5. **Itxas-egal betikoan laster zaitut ikusi bear.**
Untzilari azkar!, zeure eskuz naraozun ori!
uin zakar gain lematu bakez nire ontzitzoa,
gaurkoz beñik-bein.
6. Ai, **itxi eidazu, Jauna, zeure arpegian murgiltzen,**
ez dot an geiago entzungo mundutar abarrotsik;
eidazu zeure maitasuna, bete naizu grazi-doez,
gaurkoz beñik-bein.
7. **Zeure bularrean gorderik, ez naz ni bildur-izu;**
nik ez dot izango gabak dakarren ikararik.
Oi Jesus!, eidazu lekua zeure biotz orretan,
gaurkoz beñik-bein.
8. **Zure Jainko-biotz ondoan nik oro dot aitzu a,**
ez ni geiago latz-azoko gauaren bildurrak.

Ai, eidazu, Jesus, tokia zeure biotz Barruan,
gaurkoz beñik-bein.

9. Ogi bizi, zeruko Ogi, Eukaristi done!

Oi mizterio guren! Maitasunak dagiana...
Neure biotzeratu zaitetz, Jesus Osti zuri
gaurkoz beñik-bein.

10. Bat beki Zeugaz, otoi, Ama Mari doatsua

eta nire adar aulak frutua dabe emongo,
urrezko mordoak dautzudaz nik eskiñiko,
gaurkoz beñik-bein.

11. Maitasunezko mats-mordoa nik arima-alez esotua,

nik zeure aienari itsatsiz loraten jarria.
Ai!, Jesus, eidazu Apostolu baten sugarra,
gaurkoz beñik-bein.

12. 0 Birjiña garbi! zaitetz ene tzar txit gozo,

zeure Jesus distirantez murgilduko nozu.
0 Ama! itxidazu zeure egopean atsedan artzen,
gaurkoz beñik-bein.

13. Ene Aingeru jagole on, gorde naizu maitekiro

zeure egoño samur dirdaitsuen itzalpean,
gida eizuz nire oinkadak... Zeuretu naizu
gaurkoz beñik-bein.

14. Ikus nai zaitut, Jauna, itzal-arte ta laiño barik;

gaur baiña erbestetua, Zu gabe, miñetan nago,
gorderik dodala zure arpegi maitagarria
gaurkoz beñik-bein.

15. Laster dagiket egaz zure goralpen-kantak abesten.

Gautzen ez dan eguna arima gaiñ dodanean,
Aingeruen lira-gaiñ nik dautzut jada abestuko,
gaurkoz beñik-bein.

ITZULTZAILLE: AITA ONAINDIA

ZUGARAMURDI

ε~RAMUgp~



SASKI-NASKI aldizkarian idazlan bat idazteko eskaria egin eusten, orretarako beste aldizkari batetik gaiak eskintzen eustezala.

Jakingarriak batu eta idaz-lantxu ori eratzten niarduala, auxe etorri jatan burura: Zergaitik ete nago ni Zugarramurdiko leizak ikusi barik? Eta geiago barik bertara joatea erabagi neban.

Eldu gintzazan Urdazubi erri politera eta an jakin genduan leiza ori non egoan. Zergaitik ez ete dago bide-ertzean Zugarramudiren izenik be. Leizak dagozela besterik ez.

Bide zidor estu ta txatar bateri jarraituz, berebilla do-doi joateko lako bidearen azkenean aurkitu genduan leiza ori. Sarreran andra batek sarrera-ordaiña eskatu euskun eta ikusi gendun leiza ori iñok ezelako azalpenik emon barik.

Goibel biurto nintzan barriro errirantza.

Erri aretan da baita "Gero" liburu ederra idatzi eban Axular'en jaiote-etxea. Barriro itaunketan asi bear etxe ori non dan jakin gura ba'gendun. Ez egoan iñon ezelako barririk. Gizon erdeldun batek esan euskun bidea nondik zan eta bere esanak betetetuz eldu gintzazan Axular'en etxera. Aurreko ormearen erdian egoan idazki batek ziurtatu ginduzan, Euskal-

tzaindiak eta Naparroa'ko Gobernuak ipiñia zan idazki ori, oker ez ba'nago.

Egun batzuk geroago, Karmen'go Ama'ren eguna zala-ta, Aita Santi Onaindia gaz alkartu nintzan Larra'ko lekaide-etxean eta Mezearen eta bazkariaren bitartean izan gendun alkar-izketa labur baten Zugarramurdi aitatu gendun eta Santi bera gertu agertu jatan egun baten Zugarramurdi'ra joan eta astiro toki ori ikertzeko.

Geroago ZER gure aldizkari onetan irakurri dot Aita Santik berak ara egin eban ostera baten barria, igazko iraillean argitaratu zan 144n. zenbakian agertzen dana.

Dana dala, esango dodan lan au egitea dagokionari, nik auxe eskatuko neuskio: Urdax eta Zugarramurdi'ra bideak ikur edo bide-oar egokiak ipiñiaz argitu, Zugarramurdi ta Urdazubi'ri buruz liburutxu batzuk idatzi eta errez eskuratzeko lekuan ipiñi, leizaren aurrean kordairazko jakingarriak ezarri idatzita, esaterako Koba aren sarrerako jesarlekua, barruan sorgiñen autorlekua zein zan, leiza orrek dauan bigarren agoa non dagon, leizatik urrean dagoen akelarrea zein dan eta gai orreri buruz jakitunak diñoena... Eta bideak ondo konpondu...

Eta Axular'en etxean beste barri-emote batzuk: Liburua zein zan, liburuaren gaia, idazle onen bizi-tzako barriak eta abar... Urdazubi eta Zugarramurdi gai dirala, irudimena dauken eratzailleak gauza ederrak gertatu leikeez eta gertatu bear dabez.

Baiña zertarako ori? Geure kondaira jakin dagigun, gure ibillaldietan geure erria ezagutu dagigun, kanpotik datozen txangolariak zer-ikusiak izan dagiezan eta beste zio askogaitik. Gauzak ondo egin bear dira, eta ondo egiñak ondo agertzen dira.

OLAZAR'tar MARTIN'ek

OMENALDIA DERIO'N (Labayru'k Kerexeta'ri)

Uztaillaren 12'an izan zan. Derio'ko Seminarioan.

Urte guztietan egiten dan gauzea da, baiña urte ba-koitzean eukiten dau bere berezitasuna ta bizitasuna. Aurten be bai.

Aurten Kerexeta omendu eben. Aurreko urteetan Lino Akesolo, Justo Mari Mokoroa eta beste batzuk izan eben euren goratarrea.

Omenaldiaren akademi-ekintza izan zan garrantzitsuena. Lau itzaldi labur eta mamintsu: Ander Manterola'k azaldu eban omenaldiaren zergaitia argi eta zeatz, Gero Lino Akesolo'k egin eban berba adoretu eta gogotsu Euskal-Bibliaren kondaira egiteko, eta urrengo Karmelo Etxenagusia'k agertu ebazan Jaime'ren eleiz idazketako lanak, eta, azkenez, Igone Etxebarria'k aztertu ebazan Kerexeta'ren olerki lanak. Eta amaitzeko Kerexeta'k berak egin eban berba labur eta zorrotz. Ez genkian Kerexeta ain eres-zale zanik, bere bizitzako unerik gozatsuenak eresa edo musikea entzuten igaroak zirala esan eban, entzun baiño be beiañago, pianoa joten igaro ebazanak.

Umora ona agertu eban aurkezle-lana egin eban Eguzkik, bere barregeiakaz omenaldiari gatza botateko-edo...

Eta aitatu bearrekoak dira emen Jon Enbeita ta Iri-
neo Ajuria'k egin eben lana: Bizkai'ko bertso zarrak

abestu. Gure euskerearen arlo aztergarria da koplaz-
rrena eta Enbeita'k orretan egiten dau Ian, naizta gaur
aurkeztu dauzanak lar arin batzuk izan, berak esan
ebanez. Anboto'ko bertsoak, Marijesiak, Bei zarrare-
nak, Peru Dubako, Imanoltxu... Marijesiak, esate-
rako, gure eleizetan entzuten genduzan umeak gi-
ñala, eta gernikaldean be abesten dirala diñoskue
baiña olako ekiñakdi baten entzuteko aukerea izatea
pozgarria da.

Gero alkarteko aparia, dana jai-giroan eta pozez
amaitzeko.

Oraingo onetan Kerexeta'ri omenaldi egokia eso-
kiñi dautson Labayru Ikastegia bera be ez dogu itzi
bear goratu barik. Errian egiten dan euskeratik asita
ainbeste euskaldun abedetu dauz erakunde onek,
urte guztiko lanean erririk erri eta udako ikastaroan.
Lan onentzat aldi latzagoak agertu jakuz, baiña egiña
eginda dago eta egitekoa, era batera naiz bestera,
egingo da.

Eta olako poz-giroko ospakizunak be bear dauz
gure euskereak, batez be lan sakona egin eta gero iza-
ten diranean.

Amaitzeko, eskuko egitarauan agertzen dan oler-
kia zatia ezarriko dogu emen, Kerexeta'ren **Orbelak**
liburutik artua (1958):

IGURIAKO ERROTAN

Igura'ko errotan
Amairu sorgin, gabeen;
Iguria'ko errotan
Dantza-dantzari kantetan.

Areik bai gorputz ariñak,
Arpegi argi, oin bizkor!
"Klin, klon, klin ta klan soñuaz
Ekiok ik, bolu, gogor».

Sorgin-gaba don, itxuraz;
Ilargi bete; ozkarbi;
Izarrak diz-diz; aiza
Lotan... Au gau zoragarri!

Iguria'ko errotan
Eundaka sorgin, gabeen;
Iguria ko errotan
Dantza-dantzari kantetan!

J. Kerexeta *Orbelak* 1958

BOLATOKIAK

1991'eko lorailaren 19'an, Bolari ospetsua dan Izurtza'tar Bixente'gaz alkar-izketea izan neban.

Bere etxeko areto eder baten artu ginduzan. Areatoa oraingo eraz eta egokiro apainduta nago.

Igandea zan. Orduantxe ziarduen urrutikuskiñez España-Bira emoten: Lejarreta, Mauri...

Jarduna amaitu zanean, geldi-une baretsu baten, nire aspaldiko lagunari itaun au egin neutson:

— Izurtza lagun! Sarritan entzun dautzut zu bolari izan ziñala eta orain be, zeure irurogei ta amar urteak lepoan dozuzala, kirol orren zaletasuna ez dozula galdu. Esan egistazuz kirol onen jakingarriak, Bizkaiakoak naiz mundu guztikoak.

— Dakidana esango dautzut poz-pozik. Bizkaia'n 15 bolatoki dagoz, emen, Zornotza'ko San Antonio'n, Orozko'ko Ibarra'n, Arakaldo'n, Larrabetzu'n eta abar...

Ez neuri keia botateko, baiña jakinbearrekoa da gure Bizkai onetan zortzitan izan naizela txapeldun.

— Eta Bizkaiko gaztediak onartzen dau kirol au?

—Ez. Aitatu be ez dabe nai.

—Orduan laster ezereztuko jaku ain polita dan kirola. Eta Euzkadiko beste lurraldeetan, Araba'n eta Gipuzkoa'n batez be, ba-dago zaletasunik?

— Emen gure artean baiño geiago dagoala esan lei. Baita España'ko lurraldeetan be. Bein 82n. urtean txapeldun izan nintzan. Oraingoz Gipuzkoarrak gu Bizkaitarrak baiño zaleagoak dirala esan bear dogu, naizta irabazle diranean onak izan arren galtzen dabenean txarrak izan. Ni eurakaz ibilli nazenean, batzutan irabazi eta beste batzutan galdu egin dot. Arabarrak be onak dira kirol onetan eta oneikaz be ibillia naz.

— Orain, Bixente, agertu egistazuz bolatokietako gai berezi batzuk: banaka ala bikoteka egiten dan, txirloak zenbat diran, eta zeuk orretzaz dakizuzan gauzak.

—Esan daustazu banaka ala bokoteetan egiten dan. Bietara egiten da. Txirloak goian 9 dira, aide baten, aldatz apur bategaz txirlo txikitxu bat, txakiña esaten dautsoena. Bolaketan a botatea eta bolea da jomuga, goiko agera elduz. Ori lortzen dabenean, garai-pen aundia izaten da bolarientzat.

* * *

Ez dakigun itzi galtzen geure Euskalerrian gure aurretikoengandik artutako kirol-joko au, ezelako naste barik gorde baiño.

LETONA'k

i



ETXANO'n Bolariak sariak banatzen. Abadea: Gallastegitgar Felix zidarrezko edontzia Izurtza'tar Bixente txapeldun

IKASTURTEA

Euskerazaleak Alkarreak izan dauan elbururikaundiena beti izan da euskerea irakastea. Orretarako egi-ten izan dau udako ikastaroa eta urte guztiko ikasturtea, mailla ezberdinetan, dakienai eta ez dakienai euskerea irakasteko asmoa beteteko.

Oraindiño euskaldunak eta euskaldundu nai dabena orpor-aldian dirala iragarten dogu urrengo ikas-

turtea, OGEI TA LAUGARRENA, bizkaieraz eta iru maillatan.

Urte guztiko ordaiña 12.000 pezeta izango da, eta ez geiago Foru-aldundik emoten dauskun laguntzari eskerrak.

EUSKALERRIAN EUSKERAZ



IRU MAILA ETA ALKARRIZKETA

EGUNAK: ASTELEN, EGUASTEN ETA BARIKUETAN
EDO ASTEARTE ETA EGUENETAN

ORDUAK: GOIZ, ARRATSALDE ETA GABETAN

ORDAÑA: 12.000 pezeta

IZENA EMOTEKO-TOKIA: EUSKARAZALEAK

COLON DE LARREATEGI, 14-2
BILBO.
URRUTIZKIÑA 423.53.22

24.º CURSO DE EUSKERA BIZKAINO. **3** NIVELES Y CONVERSACION

DÍAS: LUNES, MIÉRCOLES Y VIERNES

O MARTES Y JUEVES

HORAS: MAÑANA, TARDE Y NOCHE

CURSO COMPLETO: 12.000 pesetas

INSCRIPCIONES- **EUSKERAZALEAK**

COLON DE LARREATEGUI, 14-2 BILBAO.


LAGUNTZAILLEA

COLABORA

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA




Elebarria
Euskaldunak eta akitaniarrak
Gure kondaira zarra irakurgai
Zentzunezko ikuspegia
Itzi-eziñezko irakurgaia



Olerki - Liburua
Paulin Olerkariarena
Olerkariaren bizita, oiñarriko gai
Umea, baserria, abadetza
Guda, jokabideak, zentzuna
Abadeak, Gernika... Lauaxeta

IZKUNTZA BAT BERA DAUKAGU



*Auxe dozu zure betiko
Kutxa. Bere berbea bete
eta zure bear-izanak
ulertzen dauzan Kutxa.
Etorkizunera zabalik dagoan
Erakundea, etenbako
gora-gogoagaz
bere erriko jenteari
Iaguntza-gai osoak
eskintzen dautsozana.
Beti dago zugandik ur
izkuntza bakar baten
alkar ulertu daikegun.*



Bilbao Bizkaia Kutxa